



189. zenbakia

· IRAILA 2019 ·

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra, Xabier Aleman eta Patxi Irurtzun.

### KOORDINATZAILEAK

Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

### TIRADA

1.600 aleak

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Ziza Belaten. Egilea: Tomas Goikoetxea.

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 18 an bidalia

Olerkia



## ( ) Uts- ( ) Utsean

|| Sukaldeko xokoa oroitzapenen gettoki bihurtu da  
eta pasilloa zapata zolen isilune.

Paretak iraganeko irudiz margotu dirtu denborak  
eta ohatzearen ezkerlaldeko maindireak  
zimurrik gabe ageri dira.

Armairuan soinik gabeko soinekoak zintzilik  
eta zure usaina hauen josturetan.


Zure izana somatzen dut etxeko tiradera hutsetan  
eta zure ahotsa barreiatu den isiltasunean.  
Gune hitza, gune ( ) utsa. Une ( ) utsa.  
( ) Utsunea, ( ) uts- ( ) utsean.

neure burua,  
banitu bezala ehizakin

||

*Jon Barberena* (1979.02.21- 2019.09.12)

Iñigo Ibarra idazle odietarrak sare sozialetan partekatutako olerkia



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



## Eskualdeko eskulangileen erakusleihoa, Ultzaman

Ametza Kultur Elkarreak eta hainbat eskulangilek bultzatuta, azoka antolatzen ari dira. Goiz da datu asko aurreratzeko, zehazteke baitituzte, baina abenduaren hasieran egiteko asmoa dute, Larraintzarko frontoian.

Ana Urteaga Espinal, Iraizozko eskulangilea, da azoka antolatzen ari direnen artean. Iraizotzen **Arañozpe** etxekoa da, eta zurezko tailak egiten ditu: “Aspaldi neukan azokarena buruan, eta Ametzakoei esaten nien, ez baitago horrelakorik eskualdean. Dauden azoketan, Gaztanberaren Egunean, esate baterako, kanpokoak dira langile gehienak. Eta hori da lana erakusteko modu bakarra”.

Abenduaren lehenean egiteko asmoa dute, Larraintzarko frontoian, baina

antolatzen hasi berriak dira. Gauzak zehazteko bertako eskulangileekin hitz egin nahi dute. “Jende asko dago hemen inguruan gauza asko egiten, modu horretan egiten dutena ezagutarazteko aukera izanzen dute, gazteek ere ikusi dezaten. Teknologiaren aroan bizi gara orain, eta mugikorrez asko dakite, baina eskulana galtzeko arriskuan da”.

Ana Urteaga Espinal aitarekin hasi zen eta bere buruaz baliatuta ikasi zuen tailak egiten. “Altzairuak egiten zituen aitak, batez ere, eta bera ikusiz zerbait

ikasi nuen. Gero nire kabuz, probatzen, ikasi dut gehienbat. Gero edozein lekutan uzten ditut askotan. Nahiz eta ezertarako ez egin, deskonektatzen laguntzen dit. Horretan zauden bitartean, horretan besterik ez duzu pentsatzen”. Zurezko koadroak egiten ditu eta ondoak ere bai.

Bera hasi zen bezala, bere seme-alabek tailan ibiltzen dira batzuetan, erreleboa egon liteke beraz, teknologiaren aro honetan ere bai. “17 urte ditu semeak eta 14 alabak, bai, batzuetan tornua dudan tokira jaitsi eta probatzen ibiltzen dira. Baina ez dit kezkatzen, nahi badute hor dago aukera”.

Egiteaz gain, azokez ere asko disfrutatzen du Urteagak. Asteasun izan zen irailaren 29an, San Miguel egunean: “normalean Lekunberrira joaten naiz San Migueletan, baina hitza eman nien aurten Asteasun, eta horrela herri berri bat ezagutu dut”. Azoketan ematen den giroa da gehien atsegin duena: “nahi dudan azoketara joaten naizenez, nire ogibidea ez denez, asko disfrutatzen dut, presiorik gabe. Goizean goiz hasi eta gainontzeko postuetakoekin batean gosaltzera joaten gara. Nahiz eta egunean bertan ezagututakoak izan, harreman polita egiten da, postuan ez bazaude ondokoak zaintzen dizu, eta norbait hurbiltzerakoan zure ordeztatu ere bai!”.



▲ Onddoaren egunerako zurezko ondo txikiak egiten harrapatu genuen Ana Urteaga, Iraizozko Arañozpen



# jasangarritasun e

## Basaburua,

### **Basaburuko bi ekimen bisitatu zituen Biela y Tierra proiektuak**

Edurne Caballerok eta Ana Santidrianeke osatzen dute Biela y Tierra. Ekainean hasi eta urrira arte, 2.500 kilometro egin ondoren, elikadura burujabetzarekin harremana duten eta jasangarri diren 115 proiektu baino gehiago bisitatu dituzte bizikletaz. Haietatik bi, Basaburuan: Ernaizu kooperatiba eta Ezkurra anaiei esne-behien ustiatagia, Orokietan.

Komunikazio proiektua da *Biela y Tierra*, ekimenak ezagutaraztea baita haien helburu nagusia. Horretarako, La Dársena Estudioko sortzaileek, Sole Lopezek eta Cristina Vazquezek lagundu diete webgunean: <http://bielaytierra.com/>. Bertan argitaratzen dituzte haien bidaia koadernoak, bisita guztien laburpenak eta argazkiak, eta zehaztasunak kontatzen dituzte.

Edurne Caballero biologoak kontsumo arduratsuaren aldeko GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) batean egiten zuen lan, baina paperen artean eta ordenagailuaren aurrean egotea tokatzen zitzaion, batez ere, eta aldatzeko beharra sentitu zuen: “Bizikletan ibiltzea oso gustukoa dudanez, bidaia bat egitea bururatu zitzaidan, eta lanean harremana izandako ekimen horiek guztiak bisitatzeko etorri zitzaidan burura”. Lagun duen Ana Santidrianeke ingeniari kimikoan eta ingurumeneko doktoretza egiten ari da, eta tesia idazteaz bukatzen ari zela, gauza bera zuen buruan.

#### ● IKARAGARRIZKO BABESA

“Finantzazioa lortzen saiatu ginen aurreneko gauza. Horretarako, toki erakundeetara jo genuen, izan ere, landa garapenean kokatzen da gure proiektua, eta haien agendetan dagoen edo egon behar zitekeen zerbait da. Baina toki erakundeek ez zuten espero genuen bezala erantzun, hauteskundeak tartean... orduan crowdfunding edo mezenazgo kanpaina bat egin genuen eta hor bai, erantzun ikaragarria izan genuen” azaltzen digu Edurne Caballerok.

Ekainaren 1ean atera ziren, beraz, eta urriaren 5a bitarte 115 ekimen baino gehiago bisitatu dituzte, 2.500 kilometro bizikletaz egin dituzte horretarako. “Hasieran 3 hilabetean 30 ekimen bisitatzeko zen asmoa, baina prestatzen genuen bitartean handitzen joan zen; 4 hilabetera luzatu genuen eta 30 ekimenetik 115 ekimenera igo genuen kopurua”. Baina, gainera, bidean, aurreikusitako zituztenak baino gehiago bisitatu dituzte: “Orokietako Eusebio eta

Alejandro Ezkurraren ukulua ez zegoen zerrendan, baina hona iritsi eta ezagutu nahi izan genuen, izugarri gustatu zaigu”.

#### ● BIZIKLETA, EZINBESTEKOAK

Ez zuten bestelako garraiorik aztertu. Biak *Bielas Salvajes* talde bizikletero feministan aritzen baitira. Baina, gainera, bizikletak proiektuari zentzu guztia eman diola konturatu dira: “lan handiaren bitartez gure elikagaiak modu jasangarri batean ekoizten ari diren horiei bisitatzeko, guk ere, gure hanken esfortzua jartzea ikusten genuen”, Santidrianeke hitzetan. “Gainera, bizikletak asko laguntzen gaituela konturatu gara, ekimen batetik bestera goazenean jasotako ezagutza hori guztia hausnartzeko denbora hartzen dugu”, gehitzen du Caballerok. Ibilgailu itxi batek eskaintzen ez dizun kontaktua nahi zuten, “bestela ez duzu kontakturik ez usainekin, ez soinuekin, zure zentzumenak mutu daude” uste du Santidrianeke.



## DIRU-LAGUNTZAK:

Edurne Caballero: “Ekologikoak ez du laguntzei esker aurrera egiten, pertsonen esfortzuairengatik, ardura-rengatik eta konbintzioarengatik baizik.”

Ana Santidrian: “Ez dute dirua eskatzen, egiten utzi diezaietela baizik, oztopo burokratikoak izugarriak baitira. 20 urtez harriak bidetik kentzen egon naizela sentitzen dut, esaten digute”

## LANDA GARAPENA:

Ana Santidrian: “Biztanle galeraren arazoa ikusi dugu. Turistendako edo jai egunetako jolas-parkeetan bihurtuko direnen kezka da. Lan eta etxebizitza aukerak behar dira”

## BASABURUA, EREDU :

**Orokietan Eusebio eta Alejandro Ezkurrarekin izan dira, ekoizten duten esne ekologikoa ezagutzeko. Jauntsaratsen, berriz, Apeztegi berriko dendakudeatzen duen Ernaizu kooperatibarekin.**

### Ezkurratarren ustiategi ekologikoa, 1998:

“Eusebio eta Alejandro Ezkurrarekin behiak jezten izan ginen. Esne ekologikoa ekoizten lehenak izan ziren Nafarroan, 98an. Aurretik behiak oso maiz gaixotu egiten zitzaizkien, orduan, Donezteben izandako hitzaldi batean erantzuna lortu zuten”, azaldu digu Ana Santidrianek. Edurne Caballero: “elikadura aldatu zuten, batez ere. Pentsu konposatua emateari utzi zioten eta bazka besterik ez diete ematen behiei. Aldaketa horrekin bakarrik sekulako aldaketa nabaritu zuten, behiak arazo askoz gutxiago dute orain erditzerakoan, urdailean...lehen albataria deitu behar zuten egunero, orain intseminazioetarako besterik ez”.

### Ernaizu kooperatiba, 2011:

Ernaizu kooperatibari buruz haien malgutasuna nabarmendu dute: “Alaia eta Laurarekin izan ginen eta proiektua kontatu ziguten: etxean soldatarik gabe eta kotizaziorik gabe lan egin duten emakumez osatutakoa. Malgutasuna oso garrantzitsua dahaiendako, txandamotzagoen bidez. Gainera, bailarak dituen beharrak asetzeko jaio zen Jauntsarasko dendarekin eta tabernarekin, eta biltokia bihurtu da bizilagunendako” nabarmendu digu Santidrianek.



▲ Hiru egunez izan ziren Orokietan, bertan jaso gintuzten Biela eta Tierrak, haien ibilbidearen berri emateko



## Bueltan da Esan Erraneko Egun Ero irratsaioa

Irailaren 16an eman diogu hasiera Esan Erran irratiiko Egun Ero irratsaioaren **denboraldi** berriari. Iaz bezala, goizeko 10:00etatik 11:00etara izanen da zuzeneko saioa. Errepikapenak, berriz, 13:30etan eta 20:00etan izanen dira. Kurtso berriarekin **berritasunik** ez da faltako!

Izan ere, zazpi udalerrietako kolaboratzaileak izanen ditugu gure artean asteazkenero. Bestetik, gai desberdinak landuko dituzten kolaboratzaileak ere lotu ditugu: musika, euskara, feminismoa, **adinduak** eta osasuna, literatura, sukaldaritza... Guztia eskualdeko jendeak azalduta! Zuek ere irratian parte hartu nahiko bazenute, ez izan zalantzarik: deitu 948 50 32 32 telefono zenbakira edo idatzi 689 033 000 whatsapp zenbakira. Irailaren 16tik aurrera goizean, eguerdian nahiz iluntzean PIZTU ESAN ERRAN! Eta gogoratu irratia sintonizatzeke arazoak badituzue **amezti.eus/irratia** webgunean zuzenean entzun dezakezuela...

### Hiztegia

**Denboraldi:** Temporada

**Berritasun:** Novedad

**Adindu:** Persona mayor

## Egunero irratsaioa bueltan da

irailaren 16tik aurrera

goizeko 10:00etan ZUZENEAN

errepikapenak: 13:30ean eta 20:00etan



# Zorionak Zorionak!

Zorionak Nagore, Amaia, Unai eta Tasio!!



Zorionak Iurre!!



Zorionak Amaia!!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)

Zorionak Matxin!!



## Ikasturte berria hasi dute Ohianzabal eskolan eta Larraintzarko ikastetxean

Umez eta gaztetxoez bete dira berriro Ohianzabalgo eta Larraintzarko patioak. Ikasturteko lehen eguna izan dute ikasleek eta jostatzen ekin diote. Aurten pixka bat behera egin du ikasle kopuruak bietan.

Ohianzabal, Jauntsarasko eskolan, 67 ikasle matrikulatu dira aurten. 19 Haur Hezkuntzan eta 48 Lehen Hezkuntzan. Osotara 79 ziren pasa den ikasturtean. Metodologia berriekin, ilusioarekin ekin diote, hala ere. Esan Erran irratitik egin diogun proposamena pozez hartu du Kepa Mateorena zuzendariak, eta irratsaio bat egingen dute umeez gure irratian, **hiruhilabetearen** bukaeran.

Larraintzarren 298 ikasle dira osotara, pasa den urtean baino 9 gutxiago. Iaz lehenengoz zuzendari izandako Patxi Morenok errepikatuko du lan horretan. Bestalde, Estibaliz Agirre izanen da idazkaria; Beatriz Irurueta, LHko **ikasketa burua**; eta Cristina Altuna DBHko ikasketa burua, Carlos Mechinaren ordez.

Jostatzen ekin diote **ikasturte** berriari bi ikastetxeetan.

### Hiztegia

**Hiruhilabetea:** trimestre

**Ikasketa burua:** jefe/a de estudios

**Ikasturtea:** curso escolar



Haurrak jostaketan, ikasturteko lehen egunean, Ohianzabalen ▲



CAMPING - KANPINA

# IZARPE

ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

**Etxean eginiko eguneroko menua  
Hamaiketakoak - Parking zabala**  
Pizzak, Hanburgesak... Oilaskoen eta  
paellen eskaerak egiteko aukera  
**EGUNERO IREKITA**



eta.... Ostegunero  
8ak aldera Pintxo Pote

Denetarik eta prezio hoberenean



**HIRI BATEKO SUPERMERTAKU TXIKI  
BAT LANDA INGURUNE BATEAN**

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa  
Produktu ekologikoak eta bertakoak

**EGUNERO IREKITA**  
9,00etatik 20,00etara



iritzia



**Onintza Enbeita,**  
Berria egunkarian

## HAUTESKUNDEAK

2019ko irailaren 21ean

Azaroaren 10ean berriz ere hauteskundeak izango dira Espainiar Estatuan. 2015eko abendutik hona, laugarren aldiz zabalduko dituzte hautetsontziak. Badakit hau Euskal Herria dela, eta berez, bost piper ardura beharko ligukeela auzo herrian zer gertatzen den. Kontua da auzoan gertatzen denak eragin zuzena duela guregan. Frantziar zein espainiar gobernuak hautatu behar deno, alderdi abertzale guztiak abstenituko balira ere, hauteskunde giroa izango genuke guregan.

Ehun eta ez dakit zenbat milioi euro gastatuko ditu Espainiako Gobernuak datozen hauteskundeetan. Bitartean, PSOE gobernura heltzen zenean egin behar zituen gauzek egin gabe jarraitzen dute: LOMCE legeak bere horretan jarraitzen du, pentsiodunek kalean jarraitzen dute... Beren burua ezkertiartzat daukaten alderdiek ez dute elkartzerik lortu (oraingoan ere). Eskuina, bere buruari zentroa deitzen diona, barreka egongo da. Imajina nitzake Galiziako zokoren batean ostrak platerean eta xanpain kopa eskuan. Aukera paregabea daukate erremontatzeko, Harriketarrek elkarri harrika jarraitzen duten bitartean.

Espainiako ustezko ezkerri gauza txikiak iruditzen zaizkio independentzia eta halakoak: txokokeriak. Bada, gauza handiak aldatzeko aukeraren aurrean, ez dirudi euren burua irensteko gai direnik.

## Greba egin zuten Larraintzarren, klima aldaketaren kontra

Hirugarren eta laugarren DBHko ikasle guztiak greba egin zuten Larraintzarko ikastetxean, mundu mailan egindako irailaren 27ko deialdian.

Klima aldaketaren kontra protestatzeko greba deialdia egin zen mundu guztiko 150 herrialdetan baino gehiagotan, baita gurean ere. *Fridays for Future* nazioarteko gazte mugimenduak egindako deialdia izan zen, eta Nafarroako hainbat eta hainbat ikastetxetan jarraitu egin zuten, baita Larraintzarren ere.

Ikastetxetik esan zigutenez hirugarren eta laugarren DBHko ikasle guztiak jarraitu zuten greba. Eguerdiko 12etan elkarretaratzea egin zuten Iruñean, Udaletxe Plazan, eta bertan bildu ziren ehunka eta ehunka gazte. Klima aldaketaren aurkako neurri zehatzak eskatu zizkieten agintariei, eta emergentzia klimatiko baten aurrean gaudela azpimarratu zuten.

Arratsaldean manifestazioa ere egin zuten, 18etan, Iruñean.



Larraintzarko ikastetxea ▲





## Zabaldute Ultzamako Parke Mikologikoko bulegoa

Ikasturte berria eta zizen denboraldia iristearekin batera ireki ditu berriz ateak Ultzamako Parke Mikologikoko bulegoa. Irailaren 20an hasi zuten denboraldia, eta eta ostiraletik igandera eta jai egunetan egonen da zabalik bulegoa: ostiraletan eguerdiko 14:00ak arte egonen dira eta larunbat, igande eta jai egunetan 15:00ak arte. Edurne Gerendiain Goñi parkeko arduradunak azaltzen duenez, urteroko zerbitzuen eskaintza egiten dute: “Perretxikoak hartzeko baimenak ematen ditugu, kontsultorio mikologikoa egiten dugu larunbat eta igandetan, eta bisita gidatuak ere antolatzen ditugu”.

Bisita gidatueta parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena [info@parquemicologico.com](mailto:info@parquemicologico.com) helbidera idatziz. Prezioa pertsonako 15 eurokoa izanen da, biltzeko baimena ere barne hartuta. Hurrengo datetan eginen dituzte bisita gidatuak: irailaren 29an, urriaren 6, 12, 13, 20 eta 26ean, eta azaroaren 1, 2 eta 10ean.

Sasoi berriari iazko kopuruak hobetzeko asmo eta esperantzarekin ekin zaiola adierazi dute Parke Mikologikotik, iaz eguraldiak ez baitzuen lagundu eta perretxiko eta ondo oso gutxi jaso ziren.



▲ Bisita gidatuak antolatu dituzte aurten ere Parke Mikologikotik



## Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —

618 3520 14 [WHATSAPP] - [geroarte@ymail.com](mailto:geroarte@ymail.com)



## Eskualdeko euskaltegietan matrikulatzeko epeak zabalik

Imotzen eta Basaburuan IKA euskaltegiak emanen ditu euskara klaseak, eta Ultzaman, Atetzen eta Anuen AEK izanen da arduraduna.

IKA euskaltegietan urriaren 7an hasiko dira klaseekin, baina izena emateko epea luzatu egingen dute aurrerago ere jendeak aukera izan dezan. Klaseen ordutegiak eta tokiak ikasleen beharren arabera antolatzen dituzte, eta maila ezberdinak eskaintzen dituzte: hutsetik hasten direnentzako, bigarren maila, hirugarrena, EGA prestatzeko ikastaroa... Klaseak osatzeko gutxieneko jende kopurua dute, dena den, eta horren arabera antolatzen dira. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko 699 704 951 telefono zenbakira deitu edo leitza@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzi behar da.

AEKren kasuan, irailaren 27a baino lehen izena ematen dutenek urriaren hasieran hasiko dituzte klaseak, baina ondoren urte osoan zehar ere matrikulatu eta klaseetan hasteko aukera ematen dute. Larraintzarren, Eritzen eta Olaguen ematen dituzte

klaseak, hauek ere maila guztietan. Ohiko klaseez gain, mintzakide proiektua ere martxan dute: euskara praktikatzeko taldeak dira, eremu informalagoetan egiten dituztenak. Harremanetarako 607 622 102 telefonoa eta larraun@aek.eus helbidea dituzte.

Diru laguntza garrantzitsuak jasotzen dituzte euskara ikasleek, edozein euskaltegitan: langabetuei matrikularen prezio osoa ordaintzen diete eta langileei berriz matrikularen erdia. Ez dago gure eskualdean euskara ikasten hasteko aitzakiarik, beraz!

IKA kartela ▼

Zu hemen zaude,  
AEK ere bai

Tú estás aquí,  
AEK también



EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

### ULTZAMAKO AEK

EUSKARA IKASTAROAK / CURSOS DE EUSKERA

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES  
GURASO TALDEA

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa  
SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)  
Taldea edo autoikaskuntza / Grupo o autoaprendizaje  
Mintzakide (Mintzapraktika egiteko taldeak)

948 60 47 04 edo 607 622102  
larraun@aek.eus

Izena emateko azken eguna irailaren 27a  
Matricularse antes del 27 de Septiembre

ULTZAMAKO AEK euskaltegia  
Larraintzar

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako  
ikastaroak

Eman  
izena  
Maticulárate

Euskara-eskolak  
Clases de euskera  
Normalizazio-planak  
Planes de normalización

Mintzapraktika  
Online

Barnetegiak  
Itzulpenak-Zuzenketak  
Traducciones-Correcciones

Autoikaskuntza  
Autoaprendizaje  
EIZUL  
aldizkaria



korrika www.aek.eus · 673 200 100 · 946 464 000



AEK kartela ▲

# Egozkueko bestak 2019

## *Giro alaitsu eta eguraldia lagun izan dute egozkuetarrek bestetan*

Irailaren azken asteburuan ohi den bezala, Egozkueko jaiak ospatu ziren. Ostiralean, hilaren 27an arratsaldeko 8etan suzuria bota ondoren beste hasiera eman zitzairen. Iluntzean zezen suzkoa herritik barna ibili zen txiki eta helduen atzetik korrika. Gaztelu puzgarria ere martxan jarri zuten ttikienek gozatzeko. Ondotik herritarrek prestatutako afaria egin zen ZURRUPA TOKI elkartean.

Larunbatean, irailaren 28an eguerdi aldean herritarrek eta Egozkuera hurbildutako lagun batzuk ZURRUPA TOKI elkartean bildu ziren herri bermutaz goxatzera. Ondoren herri bazkaria izan zen, alkate jaunak prestatutako paella erraldoia dastatzeko aukera berezia izan genuen. Bai goizean nola atsalde partean, ttikienezako gaztelu puzgarria jarri zen. Haurrentzako jokuak ere izan ziren: zaku saltoan karrera, soka saltoak, piñatak, mozorroak etab. Jokuen ondotik parte-hartzaile guztiei opari txiki bat eta merendua eman zitzairen. Ilunabarrean suzko oreina atera zen herritik barna, bezperean zezenak "ezbehar" ttiki bat izan baitzuen. Gogoratu urte aro honetan eta Egozkueko mendietan bertze leku batzuetan bezala oreinak orroka sumatzen direla, beraz suzko oreina oso aproposa izan zen. Gauean ZURRUPA TOKI elkartean 60 lagun inguru bildu ziren Zubillagak emandako afariaz gozatzera eta afaldu ostean, barna arintzeko Patxirekin dantzaldia izan zen. Aipatu behar da dantzaldia ari zelaik "ezusteko bisitari" bat elkartera hubildu zen bere jakinminaz deituta: Gari zezena, hau bai egizkoa, elkarteren aurrean plantatu zen. Zer nahi ote zuen? Sokamuturrean aritu edo akaso zezen martxosoa zen?

Bukatzeke, igandean berriz ere gaztelu puzgarria martxan jarri zen bai goiz bai arratsaldean. Eguerdian herritarrek elkartea garbitzeko hitzordua zuten, azken indarrak eman eta txukun uzteko bazterrak. Arratsaldean ere umeentzako jokuak eta merendua egin zen. Ilunabarrean berriz, beste bukaera emateko, suzko oreina atera zen. Giro ederra eta eguzkia izan dira nagusi asteburu honetan, ea datorren urtean berdin ospatzen ditugun Egozkueko jaiak.

Xabier Aleman



Haurrek puzgarriak izan zituzten pestetan gozatzeko



Helduek ere giro bikainean ospatu zituzten pestak



## ***Eskualdeko kirolariak indartsu, Euskal Herriko herri kiroletako finaletan***

Lokotx bilketan, gizonezkoen sailkapenean, Imanol Kañamares aroztegiarrak irabazi zuen. Emakumezkoen sailkapenean, berriz, alde oso txikiarengatik gelditu zen bigarren Ainhoa Iraizoz eltsosarra,, eta Beuntzako Mikel Eugik eta Aresoko Itsaso Onsalok osatzen duten bikoteak irabazi zuen arpan txapelketa.

Irailaren 28an izan ziren Igantzin Euskal Herriko Lokotx Bilketa Txapelketako eta Arpan Txapelketako finalak.

Gizonezkoen Lokotx Bilketan, Aroztegiko Imanol Kañamares gailendu zen. 6 minutu eta 22 segundotan bildu zituen 1,25 metrora jarritako 50 lokotxak. Unai Iantzi (6.28) eta Aritz Ruiz (6.34) izan ziren bigarren eta hirugarren.

Emakumeen artean Eltsoko bizilaguna dugun Ainhoa Iraizotz genuen gure eskualdearen ordezkari. Bada, beste batzuetan gertatu zaion bezala, oraingoan ere txapela alde oso txikiarekin kendu zioten eskuetatik. Maider Etzezabal azpeitiarra nagusitu zitzaion, 11 ehunen aldea bakarrik aterata . 7 minutu eta 48 segundotan egin zuten biek, baina Iraizotzek 80 ehunen behar izan zituen lana bukatzeko, eta Etzezabalek, berriz, 69 ehunen. Zuriñe Frutos izan zen hirugarrena (7.50).

Bestalde, arpan txapelketa mistoan Beuntzako Mikel Eugik hartu zuen parte, Aresoko Itsaso Onsalok lagun zuela, eta irabazleak izan ziren. 45 ontzako 10 enbor ebakitzen bizkorrenak izan ziren. Unai Bertiz- Ezti Gastearena eta Daniel Saldias- Irune Biurrun bikoteak gelditu ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.



▲ Beuntzako Mikel Eugik, Itsaso Onsalok lagun, irabazi zuen Arpan txapelketa

## ***Lezoko eta Antiguoko txapelketak irabazi ditu Andoni Gaskue Larraintzarko pilotariak***

Lezoko pilota txapelketako Etorkizunak Izarrak kategorian Eloia bikotearekin batera izan zen txapeldun pilotari ultzamarra. 70 minutuko partida luzea jokatu zuten Canabal eta Elizegiren aurka. 22-19 irabazi zieten, eta kronika guztien arabera ikusgarria izan zen Gaskueren jokoak. Finaleko pilotaririk onena izendatu zuten.

Gainera, aurretik, abuztuaren 31n Donostiako Antiguoko txapelketa ere irabazi zuen Gaskuek. Zabalarekin batera jokatu zuen txapelketa hartan, eta 22-18 irabazi zieten de la Fuente eta Gamboari. Sasoi betean eta indarrez dabil eskualdeko pilotaria, beraz. Datozen txapelketetan ere zorterik onena opa diogu!



▲ Gaskue txapeldun



# sukaldaritza

## Tiramisua

‘Egun Ero Sukaldean’ atala estreinatu dugu aurtengo irrtiaren denboraldian. Hilero-hilero, eskualdeko sukalde bat bisitatuko dugu herritarrek haien gustuko errezeta bat presta dezaten. Maria Luisa Beunzak Gartzarongo bere etxean jaso gaitu lehen saio honetan, tiramisu postre italiarra nola egiten den erakusteko. Eskerrik asko Maria Luisa!

OSAGAIK (6 pertsonentzako)

**250gr gazta maskarpone**

**3 arrautza**

**Soletilla bizkotxoak**

**Kafe edalontzi bat**

**Koinaka**

**Esne-gaina 200ml**

**Azukrea**

**Kakao**

### • PAUSOAK:

1) Arrautzei zuringoa eta goringoa banatu, goringoa soilik erabiliko dugu. Goringoak nahasketa eginen dugun erretilura bota. Hiru goilarakada azukre gehitu eta ongi nahasi. Ondoren, maskarpone gazta bota eta dena ongi nahasi pikorrik gabeko masa fina atera arte.

2) Irabiagailuarekin esne-gaina montatu. (Maria Luisaren trikimailua da lehenik gainazalean irabiagailuarekin fuerte eragitea eta gero pixkanaka goitik behera egitea)

3) Esne-gaina erretilura gehitu arrautza, azukre eta maskarponearekin. Behetik gora nahasi suabe eraginez eta dena ongi nahasita gelditu arte.

4) Soletillak bandejaren basean jarri,aldelauabeherabegira. Bandejaren base gutzia bizkotxoekin tapatu.

5) Kafea (etxean egindako kafea) edalontzi batera bota, ur tanta bat eta bizpahiru goilarakada koinak eta azukre pixka bat gehitu. Ongi nahasi, eta nahasketa honekin bandejako soletillak gaintetik busti.

6) Maskarpone, arrautza, azukre eta esne-gainarekin egindako nahasketa bizkotxoekin gaintetik zabaldu denean berdin gelditu arte, eta honi gaintetik iragazki batekin kakaoa bota. Lehen solairua egina dago jada.

• 7) Bigarren solairua egiteko prozesu bera jarraitu: soletillak jarri, gaintetik maskarponearen masa zabaldu eta kakaoa bota.

• 8) Ordu pare bat hozten utzi.

• 9) On egin!!



▲ Tiramisua egiteko osagaiak



▲ Esan Erraneko esatariak eta Maria Luisa Beunza prestatutako tiramisuarekin

# Coworkinga,

## *Bi enpresek lortu dute Ultzamako udaletxeko coworking gunean lan egiteko tokia*

Urtebete baino gehiago daramatzagu iragartzen Ultzamako coworking edo partekatutako gunea martxan jartzeko lanak. Bada, azkenean errealitate bihurtu da, abian da gunea. Javier Gómez Urrutia, autonomoa, gunean lan egiteko esleipena lortu dutenetako bat da, irailan sartu zen eta zergatik azaldu digu.

Udan bukatu zen enpresek edo langileek hura erabiltzeko eskaera egiteko epea, eta udalak abuztuan aztertu behar zituen. Azkenik, bidali zuten biek lortu dute esleipena, eta irailetik erabiltzen ahal dute bulegoa. Hilean 50 euroan alokatzen dira partekatuak direnak, eta hilean 75 erokoa da bulego pribatuaren prezioa. 2023ko irailaren lehena arte erabili ahal izanen dute.

Ultzamako coworking gunea Larraintzarko udal eraikinaren hegaletako batean kokatzen den instalazioa da. Bere helburua enpresa

eta profesionalen egoitza izatea da, bereziki hauen hastapenetan eta egonkortzerako bidean lagungarri izateko. Izan ere, gunea partekatuz gastuak merkeago izatea da coworkingaren helburuetako bat. Horregatik autonomoen eskaerak dute lehentasuna, 6 langile baino gutxiago duten enpresen eskaerak ondoren, eta horiek baino handiagoak direnen eskariei bukatzeko.

### • BIESLEIPEN

Udalak bi eskaera jaso zituen uztailan eta biak onartu zituen abuztuan.

Esan bezala, beraz, irailetik martxan da gunea. Inguruko enpresa txikiak eta autonomoak animatu nahi ditu Ultzamako Udalak, haiek ere eskatu dezaten tokia, guztira 9 toki baititu bulegoak. Partekatutako gunean 8, horretan izanen dira esleipena lortu duten biak, eta bulego pribatu bat.


Bertan lan egiteko lortu dutenen artean, bata arkitektura arloan aritzen da eta bestea zerbitzuetan. Azken honekin izan gara gunea erabiltzeko onurak eta arazoak ezagutzeko, Javier Gómez Urrutiarekin, mikologoa eta ingurumen hezitzailea.



Javier Gomez Urrutia ▲



Bilera gela bat du guneak ▲



Baita bazkaltzeko edo kafea hartzeko gela ere ▲



▲ 9 lagunek lan egin dezakete coworkingean, 8 partekatutako gunean, 1 bulego pribatu batean

### Javier Gómez Urrutia, mikologoa eta ingurumen hezitzailea

Iraizotzen bizi da Javier Gómez Urrutia iruindarra eta urteetan Garrapo ingurumen zerbitzuko enpresan lanean aritu da, orgi basoan. Orain bere aldetik lan egitea erabaki du, eta autonomia da.

#### • ZER EGITEN DUZU AUTONOMO MODUAN?

Basorako irtenaldiak antolatuko ditut, gorputzaren eta buruaren osasuna zaintzeko irtenaldiak. Basoa gure adimenaren isla gisa erabiliko dugu. Bertan hainbat ekintza egin daitezke gainera, oinutsik ibiltzea, adibidez. Gure osasuna bere onbidean jartzen laguntzen digu horrek, gure zelulen funtzionamendu bioelektrikoa aldatzen baitu fisiologikoki. Nik adibidez belaunetan mina izaten ohi nuen, eta izugarri hobetu dut basoan zapatak

kendu ondoren.

#### • ZERGATIK ERABAKI ZENUEN COWORKINGEAN ESKAERA EGITEA?

Sinergiak sortzeko eta sarean lan egiteko helburuarekin nago hemen. Landa garapenerako proiektuak sortzea garrantzitsua iruditzen zait, landa eremuan lan egitea posible egiten duten ekimenak. Horiek jasagarriak izatea ere garrantzitsua da, baliabideak tokian tokitik kudeatzen duten proiektuak, alegia.

#### • EZ AL ZEN ERRAZAGOA ETXETIK LAN EGITEA?

Etxea eta lana bereiztea nahiago dut, deskonektatzen laguntzen dit. Gainera, 50 euro besterik ez dut ordaindu behar hemen lan egiteko, ia-ia etxean lan egitea baino merkeagoa da. Inprimagailua, bilerak egiteko gela, kafea hartzeko gela eta guztia, 50 euroren truke.

Matrikula epea  
**zabalik**  
**Abierto**  
plazo de  
matriculación

# 31

hogeita  
hama  
urte

# ika

**Matriculicate**

Cursos de euskera / Euskara ikastaroak



[ika.euskalregioa.eus](https://www.ika.euskalregioa.eus)

Nafarroako  
Gobernua Gobierno  
de Navarra

Mankomunitateak diruz lagunduta

euskara errazago egiten

## IMOTZ-BASABURUAKO EUSKALTEGIA

**Maila guztiak**

*Todos los niveles*

**EGA ikastaroa**

**Talde presentzialak /  
Autoikaskuntza**

*Grupos presenciales /  
Autoaprendizaje*

**DIRU-LAGUNTZAK  
BECAS**

**948610776 - 699704951**

[leitza@ika.euskaltegiak.eus](mailto:leitza@ika.euskaltegiak.eus)

**MATRIKULA ZAITEZI!  
¡MATRIKULIKATE!**









## Plazaolako Biltegia: eskualdeko lau emakumeren elkarlanetik sortutako proiektua Latasan

1958. urtean Plazaolako tren zaharra bertan behera gelditu eta trenbideak ixten hasi ziren. Bideak zeharkatzen zituen herrietan tren zaharraren arrastoak nonahi gelditu ziren, hala ere: geltoki zaharrak, biltegiak, Plazaolako naturbidea bera...

Tren zaharraren arrasto horietako bat da Latasako (Imotz) Plazaolako geltokiaren eta biltegiaren kasua: urteetan zahartuta eta erabilpenik gabe egon ondoren, Imozko Udalak geltokiko biltegia berritzeko lanak abiatu eta haren kudeaketarako esleipen deialdia egin zuen apirilean. Kizkitza Larrea eta Idoia Jusue Muskizko bizilagunek buruan bueltaka izan zuten bertan proiekturen bat martxan jartzeko ideia, nor bere aldetik. Ez zuten proiektura batu nahi zuten jenderik aurkitu hasieran, ordea. Elkarrekin topo egin zuten arte.

### ● ESKUALDEAN LAN ETA BIZITZEKO HAUTUA

“Muskitzen bizi gara biok, baina lehenagotik ia ez genuen elkar ezagutzen. Elkartean topo egiten hasi ginen, eta Idoiak Itsasoneko Ganbaran hainbat ekimen antolatu zituenean egin genuen harreman gehiago”, gogoratzen du Larreak. Tailer horietan hizketan hasi eta biek ideia bera buruan zutela konturatu ziren: Latasako geltokian proiekturen bat martxan jartzea.

Sol Flores Aizarozko (Basaburua)

bizilagunarekin elkartu ziren gero. “Martxoaren 8an ezagutu genuen elkar Sol eta biok. Orduan jakin nuen berak ere eskualdean lan egin nahi zuela, eta proiektura batzeko proposamena egin genionean segituan eman zigun baiezkoa”, azaltzen du Jusuek. Sukaldaria falta zuten azkenik, eta Floresek lehenagotik ezagutzen zuen Eva Fernandez Egillorko (Ollaran) bizilaguna izan zen egitasmora batu zen azken kidea. Proiektuaren oinarri eta balioetan ez ezik, eskualdean bizi eta lan egiteko hautuan ere bat egiten





dute lau emakumeek. Gunearen kudeaketa eramateko Baietz kooperatiba sortu dute.

### ● TABERNA ETA JATETXETIK HARAGOKO PROIEKTUA

Plazaolako Biltegia izena jarri diote Latasako guneari. Hanka ezberdinetako proiektua da laukoteak bertarako diseinatu duena: taberna eta jatetxeaz gain, dendatxo bat ere irekiko dute gunean: “Herriko jendearentzat ere bai, baina bereziki natur bidean pasieran den jendeari zuzenduta egonen da: higie-ne produktuak, bizikletentzat partxeak... horrelakoak egonen dira”, azaltzen dute. Eskualdeko eta garaiko produktuak ere eskainiko dituzte bertan, eta inguruko artisauari ere txoko bat eskaini nahi diete. Nekazari, ekoizle nahiz artisauari beraiekin harremanetan jartzeko dei egin diete baietzkoop@gmail.com helbidera idatziz.

Informazio gune txiki bat ere izanen dute Plazaolako Biltegian, eta baita irakurketa txokoa, haurrendako gunea, baratze ekologiko eta pedagogikoa, bizikletak alokatzeko zerbitzua... Hori guztia gutxi balitz, biltegiaren ondoan duten Latasako frontoiaren kudeaketa ere haiek eramanez dute. “Kirolari oso lotuta egonen da toki hau, frontoiaren ondoan baitago eta Plazaola

eta Eurovelo ibilbideak bertatik pasatzen baitira. Gure proposamen gastronomikoan saiatu nahi dugu betiko sukaldaritzaz gain bestelako eskaintza ere egiten: sukaldaritza begano-begetarianoa edota energetikoa, esaterako”, dio Jusuek.

Pausoz pauso eta pixkanaka hasi nahi dute, baina aurrera begira Plazaolako Biltegian noizean behin hitzaldiak, tailerrak eta antzeko ekimenak antolatzea ere badute buruan. “Guk argi genuen ez genuela nahi taberna-jatetxe soil bat izatea, proiektu hau zerbait gehiago izatea nahi dugu, aberasgarriago izanen dena”.

### ● IREKIERA, KURTSO BERRIA HASI ETA GERO

Gunearen obrak bukatuta, barrukoa betetzen eta antolatzen ari dira honezkero lau kideak. Irekiera datarik oraindik ez dute, baina urri-azaro ingururako dena prest egotea espero dute: “Gu saiatuko gara ahalik eta azkarren egiten, baina ez dugu data zehatz bat jarri nahi”, diote. Beren burua gehiegi estutzerik ere ez dute nahi, lan handia baitute aurretik eta beren proiektuan garrantzia handia ematen baitiote zaintzari: norberaren zaintza, elkar zaintza nahiz inguruarekikoa.



Plazaolako Biltegia barrutik ▲



▲ Terraza itxia eta baratze pedagogikoa egonen dira atarian



## zigortu zituzten

***Eltsoke neskatek ultzi ederra eman Martini (eta II)***

*Gastuak ordaintzeko eta barkazioa eskatzeko.* Hori zen Martinek eskatzen zuena. Gehieigizkoa zen *Sorazabalea, Ezkurdia, Dorrondoa...* etxalde handiendako. Hori bi aldiz barkazioa eskatzea bezala zen. Eta Iruñean xuritu zuten kontua, Epaitegian. Alde bakoitzak bere lekukoak eraman zituen:

Martinek, Zenozko hiru lagun, *Palazioko* nagusia, Bernardo Lasaga, eta apeza, Juan Iaberi; eta *Danbolin*. Eta Eltsoko lau lagun, horien artean bere koinatua Jose Eritze eta harrigarria bazaigu ere, Benito Goñi, saltsan ibilitakoa, *Sorazabalean* mutil egondakoa.

Egin zituzten azalpenak ez ziren bertze mundokoak izan, Benito Goñik informazioa gorde duela agerian dago. *Danbolin*, bere lehengusuak, ez du deus gehitzen. Harrigarria Jose Eritzeren testigantza da, koinatuarena: honek aipatzen baitu nola gau hartan *Sorazabalean* zela eta nola Manuela Eltsok eman zion mandatua etxeko mutilari, Benito Goñiri alegia.

Han izan eta ez zuen deus arrarorik sumatu? Ez zuen sumatu nola zebilen Manuela tranpa antolatzen? Edo zozoskoa ote zen Eritze hau? Ez da oso sinesgarria bertzela!

Eta Josefa Almandozek, **Juankoneko** etxekoandre alargunak, bertzeak bezalatsu, eta *Sorazabaleko* putzura ur eske perratarekin joan zenean ikasi zuela gertatutakoa, biharamunean, Maria Martina Nuin, **Sorazabaleko** neskameak kontatuta.

Anitzez interesgarriagoak dira neskatek aurkeztu zituzten lekukoak. Informazio gehiago ematen dute Martinen kontra. Gehienei ikusten zaie gazteei laguntzeko nahia; eta batez ere, interesgarriak dira aipatu zituzten izengoitiak direla eta.

Lekuko batzuk, gazteriak **“berekin duen buru falta eta ausarkeria”** aipatzen dute, egindako tzarkeriari indarra kentzeko; eta denek aipatzen

dute Martinek nola zuen izengoitiak jartzeko grina eta nolako amorrazioa sortzen zuen horrek. Horietako batek kontatzen du nola egon zen mutil borts bat hilabetez Martinekin, eta honek berak kontatu zion Iraitzotzen ia herri guziari jarri zizkiola ezizenak. Bertze lekuko batek ere gauza bera kontatzen du.

Nola izan zen ultzia aipatzerakoan ez dira ados jartzen: batek erraten badu eskuz jo zutela, bertzeak aipatzen du ziordak erabili zituztela. Apeza eta zerbitzaria izan ziren bi lekuko, eta lehenak eskuz izan zela eta bertzeak berriz ziordak erabili ote zituzten.

Bertzetik, beste bi lekukok aipatzen dute Auzan ere horrelako kasu batean herriko neskatek nolako eskarmentua eman zioten mutil bati, eta hortik hartu zutela, dirudienez, berdin jokatzeko erabakia.

Eta denak ados dira Martinek ez zuela zauri edo elbarritze konturik inola ere izan, gertakariaren biharamunean lanean ikusi baitzuten.

Apeza da lekukotza luzeena egiten duena, era diplomatikoan, gazte kontua izan zela, eskuz jo zutela, *Sorazabalekoak* jende ona, ongi ikusia, fidagarria... zela. Ahal zuena egin zuen zigorrak izan ez zedin, behin baino gehiagotan gezurretik hurbil, zioarden kontuan errate baterako.



*Perutxenea bota orain 32 urte eta bertan egin zuten etxea.* ▲



*Apezetxea, elizari atxikia (itsatsia). Hemen bizi ziren apeza, zerbitzaria eta bi ikasle. Fermin, zaharrena, 16-17 urtekoa. Honek informazio pollita eman zuen.* ▲



“

## Eltsoko neskatak ausartak? Iraizozkoak eta Auzakoak ere era berean jokatu zuten.

”

### • ZIGORRA

Egin beharrekoak egin ondoren, hiru epaileek eman zuten sententzia: Zazpi neskatak zigortu zituzten. Manuelak 15 libera ordaindu beharko zituen eta gainerakoak hamarna. Eta epaiketan izan ziren kostuak, jakina, eta bi aldetakoak gainera.

Eta bakarren batek ez bazezakeen, horrek ordaindu beharrekoa bertze guzien gain izanen zen.

Eta horretaz at, zorrotz erraten zitzaien, beren egoerari eta sexuari zegokien zintzotasun eta neurritasunaren kontrako lotsagabekeriari eta gehiegikeriari ez egiteko.

Eta Martin Iraizotzi, neskaten agindupean, agintzen zitzaion

hemendik aitzina izengoitirik ez jartzeko.

Nik uste bi aldeek kontent izateko sententzia zela. Martinek ez zuen bertzerik nahi, eta neskatek ere, nahiz kostuak zirela eta kalteturik atera, ez zuten amor eman eta buru gorarekin atera ziren. Martin bezalako bati barkamena eskatu baino lehen, dirua errekarra botatzea hobe! Burua zut izatea mila aldiz hobe!

Hala ere ostatura joan beharko zuten denak sententzia entzutera eta hor ardoa beharrean ozpina irentsi beharko zuten neskatek Martin aurrez aurre ikustean. Martinek, berriz, lasai irripartsu izanen zen, horrelako lotsagalduraxolakabea baitzen.

### • KOSTUAK

Kostarioa ez zen ttikia izan, 424 tarja eta 4 kornado. Eta ordaindu zuten. Beharko!

Eta kontuak egin eta handik hilabete batzuetara Juan Simon Zabalegi, alkate izandakoa dugu erreklamatu, berak izan zituen gastuak ere kobratu nahi zituela eta: 6 egunez eduki zuen Eltsoko kartzelan Benito Goñi eta honen jansaria, 8 peso ziren 9 marabedi gutxi. Eta presoak zaindu zuten gizonaren jorrala.

Hori ere Manuelak eta bere lagunek ordaindu beharko zuten.



**Txurdan**

▼ *Hau dugu Perutxenea, protagonistaren etxea (Mari Cruz Iraizotzek eman digu fotografia hau) Orain gehienek Xarrajero esaten diote etxe honi.*



### Hiztegia

**Epailea:** juez.

**Epaiketa:** juicio.

**Lekukoa:** testigo.

**Lekukotza:** testigantza.

**Xuritu:** konpondu, garbitu.

**Damboliñenea:** Zenezko etxe bat. Danbolin, jabea.

**Perrata:** ura ibiltzeko pozal antzeko bat, zurezkoa.

**Tzarkeri:** txarkeria baino zerbait handiagoa da.

**Hartzekoduna:** acreeдор.

## Nor zen Martin Iraizotz?

Hori bera! Nor zen horren harro, barkazioa esijituz zebilen Martin hori? Hori zen gure galdera eta zerbait garbitzeko, hona Martinen datu batzuk: Martin Iraizotz Sarratea, Iraizozko Iribarnekoa zen. Etxalde onekoa eta Iraizozko apezaren anaia.

Iraizotzen ezizenak jartzeko ohitura txarra izaki eta zanpa-zanpa egin zuten Iraizozko zortzi neskatek.

Ondoren, hogeita hamaika urtetan ezkondu zen Eltsora, *Perutxenera*, Pascuala Eritze Aritzurekin, 24 urteko neskatxa, 1781. urtean.

Honek bazituen bertze lau anaia,

zaharragoak, bat ezkondua eta bertzeak ezkongabeak, baina bera izan zen etxerako. Mutilzahartuxeak? Baliteke.

Nolanahi gisa, *Perutxenean* behar zuten norbait, etxea jaten ari ziren, alor parrasta bat salduak zituzten eta 300 dukateko zorra zuten. Zorra handia zenik ez dugu erranen baina nahiko handia bai *Perutxenerako*; korrituak ere ez zituzten ordaintzen (Hartzekoduna Berueteko Maestria zen)


Eta Martin etorri zen, baina erdi esku hutsik, dotea ez baitzuen handia ekarri, 100 dukatekoa, eta hori ere epeka ordaintzekoa: hirutatik bat edo, dirutan, bertzea azienda kontutan,

biak momentuan; eta gainerakoa geroago ordaintzeko. Jakina, ez zuen dote handirik ekarri, *Perutxenea* ez baitzen etxalde ona. Etxalde eta dotea, neurrikoak behar zuten izan: etxalde ona, dote ona; etxalde ttikia, dote ttikia.

1781. ean ezkontzaz etorri eta 1787an izan zen gertakizun hau, 37 urte zituenean.

Aipatuko kontu hauekin, nik uste Martin nolakoa zen antzemateko aski dela.

**OHARRA:** *Ume bakarra izan zuen, Juan Martin, eta maistrua izan zen. Honek 1815. urtean etxea saldu zuen.*



## Abian da 'Mendialdea zoragarria' argazki-lehiaketa, eskualdea birbaloratzeko ekimena

Argazki lehiaketa antolatu du Aralar-Urbaşa Landa Etxeen Elkarteak: Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Imotz, Basaburua eta Ultzamako eskualde zabala hartzen du elkarteak, eta inguru horretako argazkiak bidal daitezke lehiaketara. Aralarurbasa@gmail.com helbidera bidali behar dira lanak azaroaren 4a baino lehen.

Elkartearen eta lehiaketaren inguruan hitz egiteko elkartu gara Oskozko Etxeberria, Lekunberriko Ezkilenea eta Arruizko Juansarenea landetxeetako kideekin, Pello Conde, Raquel Chasco eta Rafa Etxarriekin.

### • NOIZ SORTU ZENUTEN ARALAR-URBASA LANDA ETXEEN ELKARTEA?

Elkartea Plazaola Kontsortzioa baino lehen sortu zen, 90. hamarkada inguruan. Garai hartan landaturismoa modan jartzen hasi zen, eta landetxe ugari jarri ziren martxan gure inguruan.

### • ZEIN DA ELKARTEAK BILTZEN DUEN ESKUALDEA?

Izenik ez duen eskualde zabala hartzen dugu, eta Nafarroako Gobernuarendako gure eskualde zabal honek ez du izenik: batzuek Piriniotzat hartzen gaituzte, beste zenbaitendako ekialdeko Kantauri gara, beste batzuek Plazaola deitzen digute, edo mendialdea... Bailara asko gara, eta horrek zaildu egiten du gure arteko harremana, baina egia da orografia, paisaia edota kultura aldetik berdinak garela, horregatik planteatzen dugu guk guzti honi gorputza ematea eta modu polit batean proiektatzea. Mendialdea izendatzea erabaki dugu eskualde zabal honendako topatu dugun izen erreferenzialena delako.



Argazki lehiaketaren kartela ▲

### • ZEINTZUK DIRA 'MENDIALDEA ZORAGARRIA ARGAZKI' LEHIAKETAREN HELBURUAK?

Bi helburu nagusi ditu ekimenak. Lehena eskualdearen garapena bultzatzea da: eskualde honetan ditugun elementu aberats ugari baliotan jartzea, dispersioagatik oharkabean gelditzen direnak. Bestetik, eskualdeari entitate

izaera ematen hasteko helburua ere badu lehiaketak. Argazkilaritzan diharduen jende asko dago gaur egun, askotan beraien argazkiak etxean gelditzen dira, eta pena da, material guzti hori erabiltzen ahal baita zerbaitetarako. Uste dugu argazkiek laguntzen ahal dutela eskualdeko nortasuna eta autoidentifikazioa sendotzen, balioa ematen.

### • PARTE HARTU NAHI DUTENENDAKO, ZEINTZUK DIRA LEHIAKETAREN OINARRIAK?

Gai librea izanen da eta edonork har dezake parte: bertako bizilagunek, bisitariak... Eskualdearen bizitasuna islatzen duten argazkiak dira bilatzen ditugunak. Paisaia, flora, fauna, baina baita eskualdeko alde humanoa ere. Hiru sari egonen dira lanik onenendako: Nafarroako edozein landetxetan asteburuko egonaldia, eskualdeko jatetxe on batean otordua eta bertako produktuekin osatutako lotea.



Pello Conde, Raquel Chasco eta Rafa Etxarri elkarteko kideak Oskozko Etxeberrian ▲



## *Eskualdeko ferratokietako bat zaharberritu dute lan babestuko kideek Eritzen*

Igoan (Basaburua) eta Eritzen (Atetz) gelditzen dira garai batean gure eskualdean garrantzia handia izan zuten ferratokiak. Bi eraikin horietan zaharberritze lanak egin dituzte azken urteetan lan babestuko kideek, Ultzamako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek bultzatuta. “Igoakoan lan egin genuen duela hiru bat urte: pintatu egin genuen, eta hango herritarrek ere hartu zuten parte lanetan”, azaldu digu Maite Urroz Telletxea mankomunitateko gizarte langileak. Beramendiko xahutegian ere egin dituzte zaharberritze lanak azken hilabeteetan.

Orain gutxi, berriz, Eritzeko ferratokian aritu dira eraberritze lanetan. “Orain bi urte kanpotik margotu genuen lan babestuko parte-hartzaileen bitartez, eta geroztik pixkanaka eta pausoz pauso aurrera daramagun proiektua da hau”, dio Urrozek. Aurten eraikina barrutik konpondu, zementuarekin paretak moldatu, iskinetako zenbait pilare luzitu eta lurzoruan hormigoia bota dute langileek. Lan babestuko programako kideak ez ezik, herritarrak ere auzolanean aritu direla kontatu digu gizarte langileak.

### ● LAN BABESTUAREN EKARPENA

Lan babestuko programen azken helburua bertan parte hartzen duten pertsonen laneratzea bada ere, Urrozek garbi du helburu horretarako bidean ematen dituzten pauso txiki guztiek ere garrantzia handia dutela. “Guk garrantzia gehiago ematen diogu tartean lortzen diren helburu pertsonalei, parte-hartze hutsarekin lortzen direnei: diru sarrerak euren lanaren bidez jasotzea, kotizatzea, ondorengo prestazioetarako eskubidea izatea, eta batez ere lanketa pertsonala eta prestakuntza”.

Momentuz sei pertsona pasatu dira lan babestuko proiektutik, eta Urrozek azaldu digunez gehienak emakumeak izan dira. Igeltserotzarekin lotutako hainbat teknika ikasi dituzte, ondoren obran praktikara eramateko. “Pentsatzen dugu prestakuntza mota hori jasotzen denean arlo pertsonala ere lantzen dela, zeharka lantzen direlako gauzak: lan erritmoa, ordutegiak, teknika ezberdinak, eta baita euren etxeetan aplikatu ditzaketen gauzak ere”.

Ekarpen polita egin diote eskualdeari beste behin lan babestuko kideek. Zaharberritutako perralekuok jada ez dira erabiltzen, baina balio kultural handiko ondarea izanik, garrantzitsua da horiek mantendu eta herritarrei erakustea.



▲ Eritzeko ferratokia barrutik berritua



▲ Beramendiko xahutegian ere egin zituzten zaharberritze lanak

## Izengoitiak?: herri guziak

Kontu zaharretan aipatu dugu nola Eltsoko neskatxek 1787ko eguberri aitzinttoan ziorda batzuekin zanpatu zuten **Perutxeneko** nagusia zen Martin Iraizotz, honek neskatxa hauei eta gainerako herritarrei izengoitiak jartzen zizkiela eta.

Juiziorako, beren defentsarako, eraman zituzten 8 lekukoek, batzuk gehiago, bertze batzuk gutxiago, nolako ezizenak jartzen zituen aipatzen dute. Izengoiti anitz irakurri ahal izan dugu. Martinek bazuen imajinazioa dirudenez, izengoitiak jartzeko arte puxka. Zoritxarrez lekukoei azalpenak hartu zizkien idazkaria, ez zen oso zuzen ibili, bakarren batzuk euskaraz zirenak erdaraz hartu ditu, bertzeren batzuetan z eta s nahasi ditu, eta batean izengoiti bat honendako erran duela eta bertzean bertze batendako.

Dena dela, guk ahalik eta txukunenik ekarri nahi izan ditugu hona. Nonbaitik hasteko, lehenik neskatxa hauen izengoitiak aipatuko ditugu:

Manuela Eltso Arraitzi, **Sorozabalekoa**, denen buru ibili zenari: **Ancaundi** eta **Oquelamendi**.

Maria Ignacia Eltso ¿Gaskue?ri, **Sorozabalekoari**, **Cutillon**. Jazten eta, pertxenta zelakoz (Kotillona ez ote zen emakumeen azpiko arropa?)

Maria Martina Nuini, **Sorozabalean** neskame zegoenari, **Sasiarro**.

Juana Martina Erbitiri, **Ezkurdikoari**, **Lodimoz**.

Catalina Oiartzuni (ez dakigu zein etxetakoa) **Coser de Cirica** (euskaraz nola ote zen?)

Juana Miguel Sanz-i (ez dakigu zein etxetakoa) **Mariserio**.

Maria Martina Zigandari, (**Dorraldeko** alaba?) **Panton**, ttikia zelako.

Izengoiti gehien aipatu zituena, nahiz denak gogoan izan ez, Fermin Barberia izan zen, 16 urtekoa eta **Apezetxean** apez ikasketak egiten ari zena. Honek eta gainerako lekukoek aipatutakoak, goikoez

aparte, hona sorta ederra:

Fermi berari, apezgaiari, **Copetazar** jarri zion.

**Sorozabalekoei**, berriz:

Nagusi gazteari, Juan Nuin Orkini, **Andreguizon**, “que significa contemplan de mujeres” (¿)

Etxekoandreari, Juana Maria Gaskue Arraratsi, **Fandango**, buruarin erran nahi omen du (Juan Nuin, bigarren senarra zuen)

Manuela eta Ignaciarenak aipatu ditugu.

**Juankonea (Sastrenea)**

Juan Simon Zabalegiri, **Ziquiti Zacata**, endreatzailea zelakoz. (Guk zitiki-zataka ibiltzen dugu)

Zabalegiren koinata bati, **Sacala bolsa** (Izengoti hau nola ote zen benetan ez dakigu. Martinek euskaraz jarriko baitzion ezizena, erdaraz, aurki, ez baitzuen jakinen, eta gutxiago izengoitiak asmatzeko)

Zabalegiren maistar bati, **Achulo**





**Machulo.** Dantzari erran nahi omen du (?)

Aitzinakoaren andreari, **Grande Labio** (Ezpain Haundi izanen zen)

Pedro Igoari, maistar zenari, **Quintalburu.** (Kintala 100 librako pisua izaten zen)

Pedro Igoaren Koinatuari, **Bizcarrandi,** cheposo erran nahi duela diote (?)

Neskato bati, **Frente armada** (?)

Emakume auzo bati, **Zitote** (?)

Eta honen senarrari **Polainzar.** Polaina oinetik belaunetarainoko jantzi bat zen.

Bertze bati, **Largucho** (?)

### Apezetxea.

Hemengoak ere ez ziren libratzen:

Apezari, **Irrillo Mirrillo.** Eltsoko apezaz irribarretsua zen nonbait.

Zerbitzariari, **Bicharra** (Muxarra omen)

Apezgai gazteenari, **Tripa Aundi.** Apezgai zaharrena goti aipatu dugu.

### Ezkurdia

Martin Esteban Zenotzi, **Polainziquin** (Polaina jantzi inportantea zen garai hartan)

Maria Josefa Erbitiri, **Lanchurda (Auzo ote zen gaude. Ezkurdikoa?)**

Juan Urdanitzi, **Lanchuri,** langile txarra; eta **Besagain.** (Auzo ote zen, idatzian jartzen duen bezala?)

### Bertze batzuei:

**Trabusca,** “que significa jorobado” (?)

**Nalgas blancas** (Zer nola esaten ote zion? **Ipur matail zuri?**) Hau jotzen du lekukoak “termino más indecente” bezala. Baina ez ote zen **Sasiarro** okerragokoa? Apustu eginen nuke!

Eta zer esan **fandango** eta **andreguizon** horiez? Gure alderdian **fandango** hitzak badu bere erranahi berezia, “alua” edo, lagunarten ibiltzen dena, argota. Garai hartan ere ba ote zuen erranahi hori? Eta **andreguizon** horrek bertze erranahi irangarriagorik ez ote zuen?

Eta bukatzeko, erran, bere andreari ere ezizena jarri ziola: **Lepoluce.** Eta bere buruari?

### Eta Iraizotzen?

Martin labeni, **Perutxenean** hilabete batzuz mutil egon zenari, hala erran omen zion gure protagonistak, harro-harro, Iraizotzko gehienei izengoitiak atera zizkiela eta aipatu ere aipatu omen zizkion, baina ez zituela gogoan bat ezik: **Chiquiroburu,** ahari burua erran nahi duena, dio.

Eta bertzerik gabe, irakurle maitea, gaurkoan ardo frexkoarekin ibili garenez, ni behintzat pozik naiz. Pentsatzekoa dut zuk ere pozik irakurriko zenituela Eltsoko izengoitiak eta neskatax hauen ibilerak. Izan ongi!



**Txurdan**

### Hiztegia

**Idazkaria:** Secretario

**Lantxurda edo lantzurda.** Guk lantxurdea: Arboletan eta sasietan lainoa izozten denean sortzen da. Goizetan, arbolak zuri-zuri agertzen dira. Leitzaldean eta, **antzigarra** deitzen diote. Eta Bera aldean eta, **mukutsa.**

**Auzo:** vecino (bezindadea duena)

**Argota:** gizatalde berezietan ibiltzen diren hitz eta esaldiak. Gazteen artean, adibidez.

**Oharra:** Eltsoko auzi hau Fernando Maiora Artaxoako ikerlariak atera du argitara, bere

azkeneko liburuan:

**“Euskera, lengua inteligible” Causas del retroceso, injurias, coplas...**

Artxiboetan, dokumentu zaharretan, euskararen arrastoen atzetik ibiltzen da langile nekagaitza hau.



▲ **Ezkurdia, Eltsoko etxe ederra.**

# Ainhoa Iraizoz

## “Bizitza osoa daramat kirolari lotuta, baina herri kiroletan duela sei bat urte hasi nintzen”

Txikitatik garbi zuen Ainhoa Iraizoz Eltsoarrak (Ultzama) kirola bere bizitzako zati garrantzitsua zela. Urteetan eskubaloian jokatzeko aritu zen, eta duela sei edo zazpi urte hasi zen herri kirolen munduan pixkanaka sartzen: “Iraizozko gure lehengusuak aspalditik aritzen ziren herri kiroletan, eta beti izan genuen probatzeko gogo. Trontzarekin hasi ginen egun batean eta gustatu egin zitzaigun”, gogoratzen ditu Iraizozek bere hastapenak.

### • AHIZPEKIN TRONTZAN

Familia kirolzale bateko kide da Ainhoa Iraizoz. Izan ere, ahizpekin aritu da hastapenetatik trontzan, azken aldian Maria Iraizoz ahizpa du trontza txapelketetako bidelagun. “Nafarroako eta Euskadiko txapelketetan ari gara lehiatzen, eta Bizkaia ingurutik ere mugitu gara erakustaldietan”. Euskal Herritik kanpo ere eramanen ditu trontzak bi ahizpak, hala ere: urrian Ibizara joanen dira han erakustaldi bat emateko.

Kirol hau dirudiena baino gogorragoa dela azaltzen du Iraizozek, eta egurra mozteko erabiltzen den erremintak emaitzan zerikusi handia duela: “Hamar mozketa egiten ditugu, 1,05 metroko lodierako haritz egurrean”.

Entrenamendu gogorak eskatzen dituen kirola da, eta guztia minutu gutxitan jokatzeko da. “Nerbioek ere eragin handia dute. Ni oso urduri jartzen naiz txapelketetan”, dio.

### • LOKOTX BILKETAN TXAPELDUNORDE NAFARROAN

Trontzan ez ezik, azken urteetan lokotx biltzen ere hasi da Ainhoa Iraizoz, eta emaitza onak lortu ditu txapelketetan gainera. “Gogorra da kirol hau ere: 50 lokotx bildu beharra dira, elkarrengandik 1,25 metrora daudenak. Urrunetik botatzea aukera bat da, baina huts egiten baduzu berriro hartu beharra duzu eta hor denbora asko galtzen da”, azaltzen digu. Nafarroako azken txapelketan bigarren gelditu zen, eta irailaren bukaeran jokatu zuen

Euskadikoan ere txapeldunorde izan zen hamaika segundo-ehunenagatik.

Herri kiroletan emakumeen parte-hartzeaz galdetuta, egoera zertxobait hobetu dela dio Iraizozek, eta geroz eta emakume gehiago animatzen direla. Baina oraindik asko dago egiteko: “Adibidez, gu trontzan hasi ginenean sei bikote ari ginen, eta orain berriz bi gaude bakarrik”. Beherakada horrek trontza on bat edukitzeak suposatzen duen inbertsioarekin lotura izan dezakeela uste du Eltsoarrak. “1.500 euro balio dezake trontza on batek, eta edonork ezin du gastu hori egin”. Oro har, baina, emakume gehiago ikus daitezke kirol hauetan, eta seinale ona da hori. Eskualdeko herritarrei dei egiten die Iraizozek: herri kirolak probatzera animatu daitezela.

“  
Dirudiena baino gogorragoa da trontza, eta erabiltzen den erremintak emaitzan eragin handia dauka

”



Ainhoa eta Maria Iraizoz ahizpak trontzan ▲



# Lurraren

## Iturriko ura, mesedez

Plastikoa material itzela da, mundiala. Hausten zaila, malgua, arina, iraunkorra, kolore ezberdinetakoa eta hori guztia gutxi balitz, merkea! Txanponetan bai merke, baina garesti ordaintzen ari gara!

Erabilera bakarreko plastikoarekin gainezka egin dugu. Gure ingurura begiratu besterik ez dago: etxean ontzietarako dugun zakar kuboak, ibai-ertzak, ... Pirinioetako airean ere mikroplastikoak arnas omen ditzakegu eta jaten dugun arrainen osagai ere bada. Datuak beldurgarriak dira: **2050. urterako itsasoan arrain baino plastiko gehiago egongo omen dira**, 2018. urtean mundu mailan milioi bat plastikozko ur botila baino gehiago saldu omen ziren minutuko, etab.

Plastikoak bezala, datuek ere gainezka egiten dute, egunero. Batzuetan, plastikoan bezala informazio artean ere itotzen naizela sentitzen dut!

Sistema mailako arazoa da bai, zalantzarik gabe, baina bakoitzak gure egunerokotasunean badugu zer esana eta zeregina. Gaur bertan has gaitezke.

### Hona hemen proposamen bat gure bizitzatik plastikozko ur botilak kentzeko:


**1**  
Lanera, kirola egiteko, ... plastikozko ur-botila batekin joateko ohitura baduzu, ordezkatu kristal edo aluminiozko batengatik. Zure osasunak ere eskertuko du!

**2**  
Etxean txorrotako ura edan.

**3**  
Taberna edo jatetxeetan ura eskatuz gero, txorrotako ura eskatu, pitxerra atera diezazutela!

Hau da hilabete honetan praktikatzea proposatzen dizugun ohitura. Erronka onartzen duzu? Datorren hilabetean beste batekin bueltatuko gara. Bitartean, iturriko uraz gozatu!

### Lurra



ur botilak ▲

## HELDU DIRA!

### BERRIOGOITI-BERRIOSUSO

Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00 / 16:00-20:00

Larunbatetan: 8:30-14:00

Eskaerak eta informazioa: **654 352 271**



## NABARREKO

NADA QUE AÑADIR

*Piper ekologikoak eta piper garbiak ere baditugu!*



PIPER ERREA

**1,90** €/Kg



# Liburutegia:

## Udazkenarekin batera liburutegia bere ohiko martxarekin hasi da

Udazkenarekin batera liburutegia bere ohiko martxarekin hasi da. Hala ere, komeni da esatea udan ere zabalik izan dela, egun batzuetan izan ezik. Egutegia eta beste albiste batzuk ikusteko (nobedadeak, ekitaldiak, liburuen aurkezpenak, Irakurle Kluba)... hau da gure Facebook!:

<https://www.facebook.com/Ultzamako-liburutegia-Biblioteca-de-Ultzama-372009129848084/>  
(edo bilatu nabigatzailean “Ultzamako liburutegia”)

Hemen ere ikus dezakezue ordutegia:

**16:30tik-19:30ra,**  
**astelehenetik ostiralera**

### Maileguak

Liburutegia leku irekia da, eta edozein etortzen ahal da liburuak eta pelikulak hartzera. Oraindik bazkide ez bazara, ez kezkatu, zatoz, zure datuak hartuko ditugu eta egun horretan bertan eraman ahalko duzu nahi duzuna (bueno, nahi duzuna-nahi duzuna ez, baina eskaintza ez dago gaizki: gehienez hiru liburu eta lau pelikula maileguan hartzen ahal dituzu. Dohainik? Eta betiko? Dohainik, bai. Betiko, ez: besteek ere nahi dute gozatu liburuekin edo filmekin. Gogoratu: hiru aste izanen dituzu liburuak bueltatzeko, eta pelikulak aste bete... Baina, oso jatorrak garenez, epea luzatu nahi baduzu, abisatu eta beste hiru aste (liburuak) edo aste bat gehiago (pelikulak) emanen dizkizugu.

Hau da liburutegiaren telefonoa:  
**948306747.**

Eta hau posta elektronikoa:  
**biblioultzama@yahoo.es**


Bide batez aprobetxatuko dugu esateko agian etxean liburutegiko pelikularen bat edo libururen bat izanen duzula “ahaztuta”... Mesedez, errebisatu zuen apalategiak, eta ekarri amaren besotara berriro! Ez dizuegu errieta egin behar! (momentuz)

### Hau ez da edozergauzarakotegia

Liburuez eta filmez gain, liburutegian ordenagailuak erabiltzen ahal dituzue... baina, adi! liburutegia ez da bideojokutegia edo chat-tegia, eta hemendik aurrera ezin izango da FRIV edo halako web orrialdeetan ibili... informazioa jasotzeko, eskola edo institutuko lanak prestatzeko... horretarako dira ordenagailuak.

### Irakurle Kluba

Bestalde, lehen aipatu dugu Irakurle Kluba. Zer da? Zer egiten du jende arraro horrek? Zertarako biltzen da hilean behin? Eta zergatik kluba? Pribatua da, ala? Lasai, saiatuko gara azaltzen. Lehenengo eta behin, Irakurle Kluba irekita dago edozein pertsonarendako. Irakurtzea gustatzen zaion edozein pertsonarendako. Hilean behin elkartu eta liburu batez mintzatzen gara. Besterik gabe. Eta nola? Zer liburu? Bada, aurreko bileran banatu duguna. Adibidez, orain La cena (Herman Koch) irakurtzen ari gara eta komentatuko dugun bileran banatuko dugu hurrengo, La conjura de los necios (John Kennedy



Toole). Baina nik erosi behar dut? galdetuko diozu zeure buruari. Ez, Nafarroako Liburutugien sareak eskaintzen dizkigu liburuak edo komikiak (komikiak ere irakurtzen ditugu). Normalean hileko bigarren asteazkenean elkartzen gara 19:00etan. Anima zaitez! Ez da intelektuala edo aditua izan behar. Denok dugu zer edo zer esateko: zer sentitu dugun liburua irakurtzean, zer gustatu zaigun eta zer ez. Eta beti, beti ikasten dugu zerbait. Beti besteek egiten dute irakurketa ezberdin bat, guk ikusi ez dugun detaile bat kontuan hartu dute haiek, edo aldrebes.

Momentuz gaztelaniaz eta helduendako kluba da, baina zuen proposamenen zaingaude; euskarazko kluba sortu nahi dugu, adibidez. Edo egun batean umeekin edo gazteekin egiten ahal da irakurle klub txiki bat, edo tailer bat (adibidez, ozenki ipuin bat irakurtzea eta umeei galdetzea zer irudituzaien, zer aldatuko lukete...?)

Hori guztia jakinda, parte hartu nahi baduzu idatzi mezu bat [biblioultzama@yahoo.es](mailto:biblioultzama@yahoo.es) emailera! Laster arte!



**Patxi Irurzun**  
*Ultzamako liburuzaina*



## Joxe Mari Munarritz Larrion zenaren oroitzapenez

Urtebete egin du Joxe Mari falta zaigula. Iazko urriaren 12an istripu batez galdu zuen bizia oraindik sasoi bete-betean zela, proiektuz, lanez, ilusioz gainezka.

Bai, gudan ez eze, makina bat lankide, herrikide, lagun eta adiskideengan ere nahigabe handia eragin zuen. Benetan ustekabean joan zitzaigun Joxe Mari, gure bihotzean zirrara minbera utziz.

Ez dugu atzenduko lhabengo langile aparta, enpresari ausarta, eta, bokazioz, abeltzain betikoa.

Oraindik ere eskuzko pilota partidak telebistaz botatzen dituztenean, haren aurpegia ikusten dugu, adi-adi, pilotarien begira, Eibarko Astelenan edo Iruñeko Labriten.

Ez, ez dugu atzenduko edozeini laguntzeko zuen prestutasuna. Bere umildadea ere ez. Baina nik Joxe Mariren bihotz handiaz gain, bere begirada eta irripar uzkur eta aldi berean ironikoa dut gogoan, betiko iltzatua gelditu zaidana.

## Joxe Mari, beti izanen haugu bihotzean!





# 2019ko abuztua

## Gure alderdian, abuztuan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### ODIETA Ostitz

Maria Palacios Juaristi, Iñaki eta Anaren alaba, uztailaren 30ean sortu zen (aintzineko Pulunpen ez zen atera)



▲ Ongietorri, Maria!

### Heriotzak:

#### ANUE Aritzu

Anselmo Irurita Etsain, **Luxeneko** semea, abuztuaren 12an hil zen, 91 urtetan.



▲ Anselmo



Zorionak gurasoei ”

“Mila zorion ezkonberriei ”

“Gure oroimenean izanen zarete ”

#### ODIETA Latasa

Eusebia Osinaga Gurbindo, **Apezeneko** etxekoandrea, abuztuaren 26an hil zen, 90 urtetan.



▲ Eusebia

### Ezkontzak:

#### ATETZ Eritze

Aritz Elortza Diaz eta Inma Rodriguez Lopez, Eritze goitiko egoiliarak, abuztuaren 31an ezkondu ziren. **Eritze goitin** segituko dute bizitzen.



▲ Aritz eta Inma

#### ULTZAMA Alkotz

Jesus Maria Barberena Erroitzaena, “Maitxene”, abuztuaren 29an hil zen, 86 urtetan.



▲ Jesus Mari

**NEUMÁTICOS BETELU**

**646 47 41 66**

**Juan Alonso Ortiz**

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

**Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
neumatikoak konpontzera  
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak  
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu**

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · [Info@neumaticosbetelu.es](mailto:Info@neumaticosbetelu.es)

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karrikolaregoitz@gmail.com](mailto:karrikolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



# Egunero irratsaioa bueltan da

irailaren 16tik aurrera

goizeko 10:00etan ZUZENEAN

errepikapenak: 13:30ean eta 20:00etan

*Piztu zure  
irratia!*

